

# Hitz beste

## *Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseinak*

### **Harri eltzekaria**

ANAÏS VAUGELADE

*Ikas, Uztartitze, 2009*

#### **HOTZETIK DATORREN OTSOA**


Udan irakurtzen omen ditu Anjel Lertxundi idazleak hotzaldietan girotutako liburuak . . . eta ipuin honetan ere, oporraldian —«kezken tregua» omen— negua eta eltzekaria dira protagonistak.

Ikas argitaletxeak 2009. urtean zehar otsoen inguruko hainbat ipuin kaleratu zituen; esaterako, Amaia Hennebutte-k moldatutako kontakizunak biltzen dituen *Hiru otso* izeneko trilogia, *Ami-Ami* ipuin interesgarria edo *Axuri bihurria* izeneko irudi-liburu ikusgarria.

Izan ere, otsoa da, haur-literaturaren protagonista guztien artean, lilura gehien sortzen duen animalia. Ez dago beldurra eta misterioa hobekiago uztartuko duenik: erdi gizakia erdi animalia, adimen azkarra baina aldi berean erdi ttunttuna, samur engainatzeko modukoa eta beti gosez dabilena.

Otso gaizto guztien artean onak ere badira, eta oraingoa, negu betean hotzez eta gosez oiloaren etxera hurbilduko den otsoa, zaharra eta ia hortz gabea dugu. Konfiantza eskean eta eltzekaria prestatzeko asmoan dabil eta harria besterik ez dakarrela dio. Tradizioan oinarritzen den kontakizun honetan, otsoak, beti legez, trebetasun-errekurtsoa erabiliko du. Eta hara non inguruko animalia guztiak, jakin-minak jota, eltzera hurbilduko diren bakoitzak barazki goxo bat gehitzeko: apio pittin bat jarriko du oiloak, txerriak kuiatxo bat, porruren bat ahateak, arbiak, aza eta abar bestek . . . eta, azkenean, otso sukaldariak eltzekari ezin goxoagoa prestatuko du.

Horrela, lagun-afari giro ederrean, supazter ondoan inguruko animaliak biltzen doaz. Ardoa eta salda dastatzeko aitzakian, gogotik helduko diote berriketari, aspaldian ez bezala hitz-aspertu gozoan . . . «afariak berant arte irauten du. Dasta, justa eta musta, bakoitzak hiru aldiz berriz



hartzten du eltzekaritik . . . zein goxo den denak elkarrekin izateak! Afariak gure artean maizago egin behar genituzke» —dio oiloak. Lagunen artean gaudenean, gizakiok hain sarri esaten ditugun hitzak animalien ahotan entzuteak grazia egin dit niri behintzat.

Bukaera misteriotsuak areagotzen du ipuin honek sortzen duen xarma, narratzaile orojakileak tupustean sukaldeko berotasunetik negura botako gaitu, sumatu ezin genezakeen amaiera batera, paisaia zuri eta beltzera. Otsoak alde egiten duen heinean, irakurleak gogoratuko du protagonista modu bertsuan hurbildu zela oiloaren etxera: poliiki, ostatu eskatuz, eta joan-etorri ibilbide hori kontakizun honetan denboraren metafora dela ohartuko gara, ez baitira neguak alperrik igarotzen. Amaieran, irudi txiki batek aurreratzen digu otsoa hurrengo etxe batera hurbilduko dela, pauma txiki bat azaltzen baita, baina hori hurrengo kontakizuna izango da . . .


Ipuinaren tonua atsegina da, erritmo eta lotura oso ondo lortuta daude; adibidez, animaliek oiloaren etxeko atea jotzen dutenean, hots hori onomatopeien bidez azalduko da. Elkarriketak sinpleak eta adierazgarriak dira, zainduak.

Anaïs Vagelade-ren (Paris, 1973) ilustrazioak parteak dira, otso konkordunak begirada tristea

du . . . otso malenkoniatsu gizagaixoa! Marrazkiek protagonistaren duintasun arraro bat agertzen dute, horiak grisaren gainetik, aldi berean kolore biziak eta ilunak. Album ilustratu honek erakar-garritasun handia du zentzu guztietan.

Urteekin zahartzaroa eta nekea eltzekari goxo batekin arindu egiten dira, horixe esatera etorri da herri-ipuina honen enegarren bertsio interesgarria. Udan zein neguan kasu egin diezaiogun, bada!

Asun Agiriano



**Ipuin-kontalariaren arbela**  
PELLO AÑORGA

Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA  
Aizkorri, Bilbo, 2010

**Gelaren epelean kontu-kontari**

Pello Añorga eta Jokin Mitxelenaren artean asmatutako protagonistaren hirugarren liburua dugu hau; eta ipuin-kontalari bat, kasu honetan idazlea ere badena, dugu liburu honen egiletako bat, eta, alde horretatik, ahozko kontaketa eta idatzizko narrazioaren arteko idazlana ere badela esan dezakegu.

Istorioko labur honen narrazioa ume bat dugu, klasean, epelean, inguru guztia elurrez beteta dagoen egun batean ipuin-kontalariaren zain dagoen ume bat. Eta ez dakigu nor den ume hori, ezta nolakoa ere, izan ere, klasea ordezkatzeko duen pertsona bat da, ikasgela horretan dagoen bat.

«Elurra egin du gaur, eta zuri dago kanpoan, zuri eskolako patioa: zuri-zuri; eta zuritasunaren erdian zuhaitza ere zuri, bakardadean... Gu, aldiz, hemen gaude, barruan gelaren epelean, eskolako berogailua piztuta, ipuin-kontalariaren zain.» (4. or.) Horrelaxe hasten da kontakizuna. Eta ipuin-kontalariak gelan egindakoak, kontatzen dien istorioa eta horren ondorioz umeei egiten dutena ditugu ipuin honen nondik norakoak. Eta, hain zuzen, ipuin-kontalaria mintzo denean dugu arestian aipaturiko ahozko kontaketa. Kontalariaren ipuinak, ahozkotasanaren formulak eta egiturak erabiliz, irudimena du oinarri, eta horrela, gelan dagoen arbel beltz eta zikinaren ordezkari leihoa, hasieran, eta elurrez zuritutako patioa ondoren, erabiliko ditu arbel moduan.

Neskatala batek idatzitako E letra batetik abiatuta elefanteaz, zuhaitzez eta mila kontuz ari den ipuina kontatuko die.

Pello Añorga sinpletasuna eta irudimena—kasu honetan irudimen horretan guztiz beharrezkoa da irudigilearen ekarpena—darabiltza istorio atsegin eta hurbila kontatzeko. Haurren ikuspuntutik abiatutako narrazioa da eta ederki lotu da haurren begirada, tonua, istorioa kontatzean eta istorioko partaideak izatean. Eta, horretarako, Añorga alde batera utzi du beste zenbait lanetan erabili dituen hitz-jolasak, errepikapenak, onomatopeiak... eta, horien ordezkari, kontalariari eman dio pisua, kontatu nahi den istorioari.

Aurretik ere aipatu dut irudigilearen ekarpena, eta ukaezina da liburu hau egiterakoan, istorio hau kontatzerakoan, idazlearen eta irudigilearen lana aipatu behar direla, biak izan behar ditugula kontuan. Leirek marrazturiko E letra horretatik abiatuta, bi zuhaitz egingo dira, eta gero zuhaitz horren baitan sagarrak... elefantearen istorioa kontatu, osatu arte. Tonu pastelak, suabeak erabiliz, Mitxelenak ederki islatzen du neguko giroa eta gela barruko berotasuna, baita ipuinaren inguruan sortutako giroa ere. Egia, bai, egia... sudur ondoan begia.

Xabier Etxaniz Erle



**Iputargiak paradisuari**  
MARIASUN LANDA

Ilustratzailea: MAITE GURRUTXAGA  
Elkar, Donostia, 2010

**Iputargi lagunaren istorioa**

Urte batzuetako isiltasunaren ondoren, Mariasun Landaren liburu berri bat iritsi zaigu denda eta liburutegietara. *Iputargiak paradisuari* izenburua duen lan honek, izenburutik bertatik adierazten zaigun bezala, antzinako istorioetara jotzen du (hipotestu moduan *Biblia* duelarik), baina baita umore eta harridura bilatzera ere. *Biblia* ezagutzen duen orok izango du Adan eta Ebaren berri; ez, ordea, bikote horren eta iputargien arteko harremanarena; eta hain zuzen, horixe dugu ipuin labur honen mamia.

Ipuinaren hasiera nahiko ohikoa dugu. Neska batek —Olaiak— amari eskatzen dio ipuin bat kontatzeko eta amaren kontakizuna dugu *Iputargiak paradisuari*.

Irakurleak Adan eta Ebaren historiaren berri izan beharko luke kontakizun hau guztiz ulertzeko ("Bada, geroago, sagarrarena gertatu zela. Hor sugeak zerikusi handia izan omen zuen, Ebari zirika eta zirika ibili baitzen nonbait."), eta gaur egungo haurrek ez dut uste, zoritxarrez, kultur ondare handirik jasotzen dutenik haurtzarora, ez mitoen inguruan, ez alegi zaharren kontakizunen gainean, ez gure gizartearen historia eta tradizioa ezagutzeko oinarritzakoak diren ezagutzak.

Pasadizo hori alde batera utzita (eta aingeruak nola bota zituen paradisuatik...), Landaren

ipuin labur honetara hurbiltzen den irakurleak maitasun-istorio bat aurkituko du, baina baita edertasunaren kontzeptuaren ingurukoa ere. Zer da ederra? Zein da animaliarik liluragarriena? Eta Adanek eta Ebak elkarriz eginiko galdera horri erantzuteko aukeraketa-prozesua dugu liburuko pasarterik interesgarrienetako bat. Animalien desfilea antolatzen baita animalia liluragarriena aukeratzeko: «Beren aurretik pasa ziren otso bel-durgarriak, hartz indartsuak, orein korrikalariak, erbi arinak, antzara kalakariak, zaldi jatorrak, asto tematiak, behi zintzoak, txakur fidelak, basahuntz zalapartariak, arrain mutuak, inurri laborariak, urretxindor lotsagabeak, basurde harroak...». Irakurleak ikusi ahal izan duen bezala, animalia ugari ageri zaizkigu kontakizunean, eta guztiak beren izenlagunarekin. Baina aukeraketa horretan zein izango hautatua, eta animalia txiki batzuk, iluntzean gaua argitzen dutenak beren argitxoekin: «Argi urdin-zurixka haiek mugitu egiten ziren, bizidunak ziruditen eta, txikiak izan arren, beste animalia puskek baino bitxiagoak, ederragoak eta liluragarriagoak iruditu zitzaizkien Adan eta Ebari».

Mariasun Landak istorio sinple eta, aldi berean, hizkera landua eta argumentu original eta bitxia duen kontakizuna eskaintzen digu; sinpletasun landuaren adibide argia, istorioak irakurlea erakarri eta sentimendu baikorrekiratu uzten duena. Olaia txikiak amaren besoetan dagoela ipuinaren amaieran ageri duena bezalako.

Eta amaren eta alabaren irudiaz ari garelarik, azpimarratu egin beharko dugu Maite Gurrutxagak eginiko lana. Hasieratik lotzen eta osatzen du narrazioa bere irudiekin, eta, gainera, testuak dioenez baino haratago doa informazio emate horretan. Gainera, kolore eta intentsitatearen erabilerean ondorioz ederki lortzen du testuaren eta irudiaren arteko tonu egokia. Are gehiago, azken irudiaren bidez fantasia eta errealtatearen arteko lotura egiten du amak, Olaia oheratzen ari den irudi horretan ipurtargiak ageri baitzaizkigu berriro, bidea erakutsiz, laguntzen... beste garai batean Adan eta Ebari lagundu zieten bezala.

Xabier Etxaniz Erle



**Katalina kontalari**  
IÑAKI ZUBELDIA & ESTIBALITZ JALÓN  
Pamiela-Faktoria K, Iruñea, 2010

#### Goxotasuna eta irudimena

Iñaki Zubeldiak idatzi eta Estibalitz Jalónek ilustratutako lan honetan txitxarra kontalari baten istorioak agertzen zaizkigu: «Aspaldi, haran, mendiko belaze batean, txitxarra zahar bat bizi zen. Katalina zuen izena eta oso berritsua zen», berritsua ez ezik txitxarra ipuin-kontalari aparta dugu eta, horrela, bi ipuin kontakutako dizkigu, lehena amona mantangorrien inguruan eta bigarrena tximeletarena. Baina, bai batean bai bestean, Matxin hankaluzek hankaluzen ipuina eskatu arren, Katalinak ez dio kasurik egingo. Testuinguru horretan, hankaluzek nola bilakatu ziren matxinsalto azalduko zaigu, eta baita Katalinak gertakari hori nola hartu zuen ere, bere istorioen bilduman hankaluzeari barkamena eskatu ondoren.

Irakurleak, beraz, hiru istorio ezberdin jasoko ditu baten barruan. Zenbait animalia (mantangorriak, tximeletak, matxinsaltoak), baina guztiak zomorrotxikien entrenigarri, guztiak ezberdinak baina aldi berean parekoak. Irudimena eta goxotasuna erabili dira istorioak sortzeko eta irudimena eta bizitasuna irudiak egiteko.

Liburu honetako testuak autonomia baldin badu

ere, eta bera bakarrik irakurriz istorioa ulertu eta gozatzeko aukera eman arren, askoz aberatsagoa da irudien interpretazioarekin eginiko irakurketa. Estibalitz Jalónek zomorrotxiki gizonaren eman die, pertsonen antza, zomorrotxiki izatera galduta; horrela, Katalinek amona baten itxura izango du, baina hankaluzek gazte dotore batena; tximeletak neska lotsati(?) bat dirudi, eta mantangorriak ume bihurria. Eta horrela, zomorrotxiki munduan egonik —eta horretarako naturaren presentzia nabarmena eta etengabea da belar, hosto, adar eta loreen bidez— irakurleak oso hurbilekoa sentitzen du mundu hori.

Jalónen lana, alde horretatik, goraiatu beharrezko dugu. Azken urteotan euskal haur eta gazte-literaturan berrikuntzak ageri baldin badira hori emakumezko ilustratzaileen aldetik etorri da gehienbat. Badira zenbait ilustratzaile —nik esango nuke ia denak emakumezko— oso lan berritzaileak eta interesgarriak egiten ari direnak euskal letretan, eta liburu hau dugu horren adibide bat. Baina, era berean, ez dugu ahaztu behar Etxepare saria irabazi zuen lan honen aurreko eta ondorengo sarrietan (*Zirkua amets* —Iraia Okina—, eta *Alex, nire laguna* —Maite Gurrutxaga—), emakumezkoak direla ilustratzaileak.

*Katalina kontalari* liburu honek tradizio asko du (alegier tradizio, istorio baten barruan beste hainbat kateatzeko tradizio, fantasiatik, ...) baina baita modernitate ere; baina, batez ere, goxotasun eta irudimena. Entzuleari kontatzeko eta irakurleak gozatzeko liburu; begiek eta belarriekin disfrutatzen lana.

Xabier Etxaniz Erle



**Ebelina Mandarinara**  
CASTILLO SUAREZ  
Ilustratzailea: LEIRE URBELTZ  
Erein, Donostia, 2010

### Lehendabiziko aldiz

Zarauzko Udaleko euskara-zerbitzuak antolatzen duen Lizardi sariak historikoki garrantzi handia izan du Euskal Herriko ipuingintzan, 1982. urteko lehen edizio hartan Mariasun Landak *Txan fantasma* obra esanguratsurekin irabazi zuenez geroztik. Urtez urte, idazle handi askok eskuratu dute sari hau; besteak beste, Bernardo Atxagak, Felipe Juaristik, Patxi Zubizarretak, etab.

Aurten, 28. edizioan, Castillo Suarezren *Ebelina Mandarinara* liburuak irabazi du. Suarez idazle nafarra ezaguna dugu helduen literaturan poesia jorratzeagatik. Bere poemetan gertatzen den antzera, elementu xume eta irudi indartsuei esker, ipuin honetan ere istorio misteriotu eta erakargarria lortu du. Kapitulu laburreko pasadizoetan, kontakizunak duen tonu goibel eta malenkoniatsuan, ukitu poetikoa antzematen zaio, Ebelina protagonistak ondotoxo baitaki zer diren poza eta tristezia, gogoia eta beldurra, bakardadea eta laguntasuna.

Zirko batean bizi den Ebelinak trapezista izan nahi du. Halere, ametsa betetzeko beldurra gainditu behar, eta Katerinaren eskutik ausartuko da, zirkoan agertu eta ezagutu berri duen neskari helduta: «ez dut inor ezagutu beldurra sentitu ez

duenik, eta ez dut inor ezagutu norbaitek eskutik heltzen dionean beldurra desagertu ez zaionik», esan dio Katerinak.


Hau Castillo Suarezrek hurrei zuzenduta idatzi duen lehenengo liburua da, eta beste idazle batzuen moduan, begirunez eta tentuz hurbildu da haur-literaturaren eremu zabalera. Hor ditugu, adibidez, Leire Bilbaoren *Garazi gerezi* poetikotasun handiko ipuin interesgarria, edo gazte-literaturan koka daitekeen *Lesterren logika*, Harkaitz Cano idazle oparoaren liburu ausart eta bitxia. Esku artean dugun *Ebelina Mandarinara* ere lan ederra dugu, nitasunetik idatzia, haurrak mundua eta inguruko gauzak nola ikusten eta sentitzen dituen adieraziko diguna. Nitasunetik idazteko hautu honek zenbait obraren oihartzuna ekarriko digu, hala nola Mariasun Landaren *Iholdi*-rena, edo Ruben Ruizen *Anekdotak* liburuko pasarte batzuen (honi ere Lizardi sariaren irabazlea, orain dela hiru urte). «Ebelina Mandarinara, arina eta pinpirina» hitzen joko erabili izanak, berriz, Pello Añorgaren ateraldi umoretsuaren estiloa gogoraziko digu; alegia, «Kaskagorria naiz. Edo kaskalaranja, eta ez Kas laranja».

Edonola ere, zirkoa denbora baten isla da, gurpilak dituen etxean bizitzea edo herriz herri ibiltari ibiltze den bezala. Zirkoako pertsonaiak (magoak, pailazoak, animalia hezitzaileak, etab.) eta kutsu dekadente eta misteriotu hori oso ondo nahasten dira kontakizun osoan, erritmo polita eta tonuaren lirikotasuna areagotuz. Eta horiek guztiak bikain uztartzen dira idazleak jorratzen dituen gaiekin: bakardadea eta babes falta, beldurra eta haurren nortasunaren bi aldeak, hau da, alaitasuna zein tristura.

Ilustrazioak Leire Urbeltzenak ditugu; hori ere artista gazte nafarra, panpinen eta laborategiko irudi bitxiengile, marrazki bizi eta kolore xua-beekin ikuspuntu pertsonal eta berezia osatzen duena, eta, Ebelinaren antzera, beldurrik barik, haur-literaturaren ilustraziogintzan bide eman-korra egiten dibilena.

Horrela, bada, Castillok egin ditu lehenengo urratsak haur-literaturaren unibertsoan. Ongi etorri, ez dadila azken liburua izan!

Asun Agiriano



**Esketxak**  
AIZPEA GOENAGA  
Ilustratzailea: ALVARO MATXINBARRENA  
Erein, Donostia, 2010

### Antzez-lan arinak

Euskal letretan genero «pobrerik» baldin badago —ez argitaratzen denaren kalitateagatik, kantitateagatik baizik— hori antzerkia dugu. Oso-osoa antzerki-lan gutxi argitaratzen dira gure artean, eta gehienak —orain arte, esan beharko genuke— merkatuko ohiko zirkuitutik kanpo (sarien ondorioz erakunde publikoren batek argitaratuta, eta antzera). Alde horretatik, guztiz txalagarria da azken urteotan Erein etxea egiten ari den ahalegina antzerkia eskolara hurbiltzeko; irakurgaiak plazaratuz, baina batez ere antzezpenerako testu egokiak eskainiz.

Ahalegin horretan kokatzen da *Esketxak* liburu hau; eta izenburuak diogen bezala, esketx batzuen bilketa da. Lau anekdota, egoera, pasadizo antzezteko modukoak. Gai eta tonu aldetik oso ezberdinak, eta gauza bera pertsonaien eta espazioen aldetik ere. *Medikuaren kontsultan*, *Arantzan*, *Txoua* eta *Barruko propulzio aerodinamikoaren kanporaketa* dira Aizpea Goenaga aktore eta zuzendari ezagunak proposatzen dizkigun esketxak. Gaizki-ulertuak, egoeren korapilatzeak, txantxak . . . jazotzen dira istorioetan, eta horrela, medikuarenean kontu nahiko xume baten kontsulta izan beharko litzatekeena medikuaren bihotzeko bat —edo antzeko egoeraren bat— bilakatzen da; arrantzaldi batean, berriz, ikus dezakegu polizia

bat, exekutibo bat, kazetari bat eta beste zenbait lagun merienda bat prestatzen denen artean.

Goenagak erraz antzez daitezkeen lau egoera eskaintzen dizkigu, eta alde horretatik aipagarria da estiloen ezberdintasuna (Txouaren surrealismo-tik, Barruko propulsiorearen umorera, esaterako). Batzuetan, gainera, idazleak pertsonaia bat erabat zehaztu baino, guk geuk aukeratzeko modukoa egin du, aita edo ama, kasu; izan ere, pertsonaiek ez daude oso karakterizatuta. Ekin-tzen bidezko karakterizazio arina dute, testuak ere horrelakoak direlako, arinak, egoera baten deskribaketa. Entretenitu, jolastu, barre egin edo lagunen artean antzetzeko testu sinpleak idatzi baititu Goenagak.

Arestian esan bezala, di-da batean irakurtzen diren esketak dira, laburrak, arinak eta oso aproposak eskolan antzetzeko —edo, zergatik ez, plagiatzeko, antzeko egoera eta antzeko estiloetako kontuak antzetzuz—. Korapilatzen den egoera, jende eta izaera ezberdinetakoak elkartzan dituen gaizki-ulertua, norberak bere papera edo pertsonaia egiteko aukera eskaintzen duen lana, eta azkenik, eta nire ustez lau testuen artean orekatuena eta landuena, etxe batean umore-egoera batetik abiatzen den kontakizuna. Orokorrean lau testuak oso lauak dira eta trama nahiko sinplea dute; alde horretatik badirudi gehiago egin direla lanon antzetzpena errazteko, irakurtzeko baino.

Edozein modutan, harrigarria da nola luzatu den liburua ehun orritik gora izateraino, berez, testu nahiko gutxi duenean. Ematen du esketx bakoitzaren hasieran ageri diren pertsonaien orri osoko irudi horiek ez direla pertsonaia deskribatzeko, eta betegarri lana egiten dutela. Eta gauza bera esan genezake testua aurkezteko moduz, espazio ugari betez testu gutxiarekin. Nik neuk behintzat liburu puztu baten aurrean nagoen inpresioa izan dut. Horrelako kontuen bidez osatu—edo beharko lukeen garrantzia eman nahi izatearena, eta horrek liburuari itxura aldetik lagundu arren, ez dut uste irakurleari ezer onik ekar diezaiokkeenik —eta bai alferrikako koste handiagoa.

Xabier Etxaniz Erle



**Mila magnolia lore**  
MIREN AGUR MEABE  
Ilustratzailea: EIDER EIBAR  
Gero, Bilbo, 2010

### Bizitzaren usaina

Duela pare bat urte Miren Agur Meabek liburu berezi bat eskaini zigun euskal irakurle guztioi: *Zer da, ba, maitasuna?* (Elkar). Bertan oso egitura berezia erabili zuen (irakurleak gogoratuko du liburua alde bietatik irakur zitekeela, atzetik eta aurretik, eta kontakizun labur bakoitzaren ostean poema bat zetorrela), eta, gazteentzako liburua izan arren, lan hura etorri zait burura oraingo hau irakurtzerakoan.

*Mila magnolia lore* honek, baina, ez du ematen haren antzik duenik. Album bat da, protagonista nagusia haur txiki bat da, eta hura ospitalean dagoen bitartekoak jasotzen ditu. Hala ere, albumetako irudia eta testuaren ekarpen horrez gain, egileek, aurreko batean Patxi Zubizarretak idatzitako *Marraztuidazu gutun bat* (Desclée) hartan bezala, protagonistak eginiko testu labur eta, batik bat, irudiek in jolasten dute.

«Ospitalean zaude. Buruko mina eta sukar itzela zenituen bart. Horregatik ekarri zintuen aitak», horrela hasten da kontakizun labur hau. Narratzailea zuzenean aritzen zaio haur gaixoari, ospitaleko ohe bati lotuta dagoen haurrari. Eta narratzailearen kontakizunarekin, eta aitak

ekarritako marrazketa-koadernoak protagonistak egiten dituen marrazki eta testu poetikoekin (edo poemekin, zuzenean esan beharko genuke) osatzen da liburuaren alde idatzia.

Aita dago denbora guztian haurrekin, baita aharrasika ari denean ere nekeak jota: «Gaua dator. Egun osoa eman duzu erdi lo, erdi esna. Aita begira daukazu bazterreko jarlekutik. Tarteka, aharrasiki egiten du, logurari ezin utsita. Patxo bat bidali dizu eskuarekin» (12. or.), baina, aurreko testuan ikusten den bezala, aitaren nekearen gainetik, alabarekiko maitasuna dago, eta detaile txiki horiek erakusten dute benetako sentimendua, baita benetako samina ere.


Eider Eibarrek, orri osoko irudietan, bi marrazki ezberdin egin ditu, bi estilo ezberdin erabili. Ospitaleko berri ematen duena, eta horren ondoan, marrazketa-koadernoari dagokion irudi sinpleagoa itxura batean; sarritan sinpletasuna baino kontu zailagorik ez baitago.

Tonu hori, gauzak kontatzea modu sinple batean, hitz, irudi, elementu gutxi erabiliz kontu asko aipatzea, irudietan eta testuetan ageri zaigu. Narratzailearen kontakizunetan, arestian ikusi ahal izan dugun bezala, baina baita marrazketa-koadernoan protagonistak idatzitako poema, testu poetiko labur eta landuetan ere, kontakizuneko egoerari erantzunez idatzitako testuetan: «Tristura. Txalupa zuriak zerutik lurrera. Magnolia-loreek belartzan jo hondo» (15. or.).

Meabe eta Eibarren artean eginiko liburu honek, bestalde, engainatu egiten du. Haur txikiarentzako dela dirudi, eta orain artekoak jarraitu dituen irakurleak ikusi ahal izan dituen bezala, kontuak, estiloa eta kontatzeko era ez daude haur txikiari zuzenduak. Are gehiago liburuak duen amaiera-ekin, iradokitzen den amaiera, bidaia baten berri ematen diguna: «Hor dago magnolia. Bertara iritsi nahi duzu eta zure habia topatu. Lore baten barruan kukutu, txalupa batean lez. Eta kulunka-kulunka, urrunera bidaiatu. Lore bat izan, beste askoren artean. Nora zoaz orain?» (34. or.).

Liburua, beraz, lasai irakurtzekoa da, hausnartzeko bertan esaten dena eta iradokitzen dena, ikusteko azaltzen dena eta liburuako testu eta irudiez gain ageri dena. Gozatzeko, pentsatzeko, sentitzeko... bizitzaren usaina.

Xabier Etxaniz Erle



**Niri ez zaizkit liburuak gustatzen!**

JOAN PORTELL RIFÉ

Ilustratzailea: ORIOL HERNÁNDEZ  
Erein, Donostia, 2010

**Hezteko liburuak**

Gustavo Puerta kritikoa Gasteizen emaniko hitzaldi batean gaur egungo haur-literatura kritikatu zuen nahiko gogor. Irakasteko liburuak, liburu errealistak eta heztekoak argitaratzen direla zioen. Eta nire poltsan Joan Portellen liburu hau nuen; Portell ezaguna dut bera ere kritikoa delako eta katalanez argitaratzen den *Faristol* aldizkariko zuzendaria.

Erran nahi baita . . . bihotza erdibiturik ekin niola liburuak irakurtzeari, ustez egilearekiko sinpatia eta konfiantza, baina bestalde liburuaren izenburuari usain txarra zerion.

*Niri ez zaizkit liburuak gustatzen!* Honek badu aurretik argitaraturiko beste batzuen antza (gure artean Pello Añorgak idatzi zuen antzeko bat), eta irakurleak badaki idazle batek liburu bat idatzi baldin badu eta ez dela izango liburuen kontra aritzeko; hots, juxtu kontrakoa bilatu nahi duela eta horretarako irakurlearen konplizitatea bilatzen duela idazleak nahi duen lekura eramateko, irakurzaletasunaren aldeko jarrera batera.

Portellek muturreko egoera bat du abiapuntua; Joan Letra Zauri gazteari liburuak besterik ez diote

oparitzen, amak liburuak, aitak liburuak, aitona-amonak ere (liburu saltzaileak izanik) liburuak oparitzen dizkiote eta Joan kokotaraino dago, horregatik erabakitzen du libururik ez irakurtzea.

Lagunekin futbolean ibiltzen da, gustura, . . . baina halako egun batean beheko auzokoak ume txikia uzten dio “bost minutuz” bere ardurapean. Umearen negarren aurrean liburuetakoko ipuinak izango dira Joanez salbazioa. Eta liburuetatik ere jasotzen du Joanez behar duen laguntza eskola etorri berria den neska batengana hurbiltzeko.

Idazkera zaindua eta estilo arina dituen liburuak berehala irakurtzen da, agian dituen zailtasun handienak hizkiak koloretako irudietan agertzea-gatik ditu; alegia, maketazioagatik, irudiaren eta testuaren irakurketa ez dela ondo egiten zenbaitetan. Baina liburuak arin irakurri arren, idazleak liburuaren aldeko ideia originalak eta sinesgarriak azaldu arren, arestian aipaturiko didaktismoa, edo hezteko asmoa oso nabarmena da, pisu gehiegi du eta ez du erakargarri bilakatzen istorioa.

Alde horretatik onartu behar dut Gustavo Puertak arrazoa zuela hitzaldia hartan. Haurrentzat egiten diren liburuetan ematen du horrelako presa dagoela, axolagabekeria; ez zaiela behar duten arreta jartzen (kasu honetan, nire ustez, irudietan eta hauen maketazioan bada horrelako zerbait; eta antzeko zerbait esan genezake itzulpenei buruz, gero eta gehiagotan ikusten baitugu —honelako liburuetan bakarrik— itzulzaile enpresa bat, eta ez pertsona bat).

Xabier Etxaniz Erle



**Nur eta etxe sorgindua**

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA

Ilustratzailea: JUAN LUIS LANDA  
Itzulpena: ROSETTA testu zerbitzuak  
Erein, Donostia, 2010

**Nurren oporraldien narrazioa**

Nur neskatoa protagonista duen laugarren liburu dugu hau. Toti Martínez de Lezea idazle ezagunak bere ilobaren omenez eginiko bildumako laugarren alea, hain zuzen ere. Eta Nur honek idazlearen ilobaren antz handia du, badakigu Txinan bizi dela, Larrabetzura etorri ohi dela oporetan, hemen lagunak dituela . . . aiton-amonak antzerki munduan ibiliak direla, eta abar. Eta alde horretatik liburuok omenaldi lanak direla dirudi, edo pertsona bati oso modu berezian eskainitakoak.

Kontuak kontu irakurleak Nursaileko liburuetara hurbiltzean neskatoaren aurkezpenarekin egiten du topo hasiera-hasieratik: «Nur dut izena. Ez Noor, ezta Nour ere. Nur, soil soilik. Nire herriaren izena zail samarra da esaten. Larrabetzu du izena, baina orain Txinan bizi naiz» (5. or.). Aurkezpena lehen pertsonan idatzita egon arren, lehen kapitulutik aurrera hirugarren pertsona orojakilea dugu narrazitzailea: «Nur bere “betiko” gelan esnatu da eta une batez pentsatu beharra du ea Pekinen zegoen ala Larrabetzun» (7. or.), eta idazleak ihes egiten dio, modu horretan, lehen pertsonan istorioa edo anekdota kontatzeari.

*Nur eta etxe sorgindua* izenburu honek abentura eta misterioa iradokitzen du, eta irakurleak horre-


lako liburua espero dezake agian. Hori horrela izan beharrean Martínez de Lezeak Nurren egunero-koan gertatzen diren kontuak aipatzen dizkigu eta horien artean bada herrian aurkitzen den etxe abandonatu baten inguruko anekdota bat, hain zuzen liburua izenburua justifikatzen duena, liburuko azken bi kapituluetan (101. orrialdetik aurrera) agertzen baitzaigu etxe sorginduaren inguruko misterioa eta honen argibidea.

Horren ordez, liburua batez ere oporretan dagoen neskato baten berri ematen du. Nola dagoen birramonarekin, aiton-amonen etxean aurkitzen dituen txotxongiloak, lagunekin igerilekuan izandako pasadizoak, eta abar. Guztiak oso modu arinean idatzita, erraz irakurtzeko eta zailtasunik gabe gertakari batetik bestera pasatzeko. Eta horien guztien gainetik bada San Juan gaueko sua eta gau horretarako Nurrek behar duen mozorroa. Sorgin mozorroa.

Ibilbide luzea egina du idazleak eta bere hastapenetan euskal legendei buruzko hainbat liburu kaleratu zituen. Orain, sorginen inguruko kontakizun horietako batzuk txertatu ditu Martínez de Lezeak Nurren istorio honetan, beste garaiko kutsua gehituz narrazio moderno honi. Txertaturiko hiru kontakizun horiez gain sorginen konjurua ere ageri zaigu, antzina zenbatzeko erabiltzen omen zuten «Baga, biga, higa, . . .»ezagun hura erabiliz.

Eraz irakurtzen den liburua dela esan dut lehenago, eta egia esan egitura, hizkera edo argumentu aldetik ez du zailtasun handirik (eta alde horretatik eskertu behar da euskarazko bertsoian itzultzaileak eginiko lana), kontakizuna nahiko sinplea eta irakurlea entretenitzea, dibertitzea bilatzen duen lanaren aurrean gaudela esan dezakegu. Prozesu horretan oso lagungarriak dira Juan Luis Landaren irudiak. Bildumako aurreko liburuetan bezala honetan ere Landak oso irudi errealistak egin ditu, kolore biziz osatuak eta testuak dioena zuzenki islatzen dutenak. Eta alde horretatik eskertzekoa da argitaletxeak eginiko apustua liburuak zaintzeko, edizio txukuna egiteko, liburuaz gain detailetxoren bat edo beste (kasu honetan protagonisten pegatina) gehitzeko. Horrek guztiak produktu are erakargarriagoa bilakatzen baitu entretenimendurako egokia den liburu hau.

Xabier Etxaniz Erle



**Pottoko hipermerkatuan**

PELLO AÑORGA

Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA

Elkar, Donostia, 2010

**Hipermerkatuan galduta**

«Pottoko potokoa da eta baserrian bizi da mendi artean.» Hitz horiekin eman zion hasiera Pello Añorgak bere lehen liburuari, duela 25 urte baino gehiago, eta hitz horiekin ekin die Pottoko protagonista duten gainerakoei ere, bai eta azken honi ere. Eta hasiera horrek, bai eta protagonista bera izateak, batasuna ematen die liburu horiei guztiei baina era berean batasun horrek argi eta garbi erakusten digu idazle (eta baita ilustratzailearen) honen eboluzioa.

Idazkera eta irudi aldetik askoz ere landuagoak dira azken lanok, eta oraingo honetan Pello Añorgak, gainera, umore kutsua gehitu dio, esajerazioa ere erabiliz. Pottoko baserriarra da eta gurasoekin hipermerkatu berri batera doa, bidaia traktorean egingo dute eta aparkalekuan utzi ondoren barrura sartuko dira. Hor hasten dira, baina, Pottokoren abenturak eta desbenturak.

«—Zu egon zaitetz hemen, Pottoko! Gu dendarra goaz gauza bat ikustera, eta, bitartean hemen itxaron! Aditzen? Eta gurasoek alde egin dute.» Pottokok eskailera automatikoetan jolasten jarraituko du harik eta aspertuta ibiltzen hasi arte hipermerkatuan. Eta horrelaxe, hau ikusi,

hangoari galdetu, hemen gauza bat probatu, han kiroltako tresnetan ibili. . . Pottoko galdu egingo da hipermerkatuan.

Argumentua nahiko sinplea da baina liburu honek duen balioa istorioan zehar ageri diren komentario, aipu, iradokizunetan datza. Euskaraz eta gaztelera ageri diren iragarki kontsumitzaileak, iragarki komertzialak ditugu horietako batzuk. Erosi, probatu, hau baino hoberik ez. . . eta Pottoko, zintzo-zintzo, tresnak probatzen, erabiltzen, dastatzen.

Abenturak, baina, ez dira horretara mugatzen; zaintzaileek, hipermerkatua itxi ondoren, lapurtzat hartzen dute eta horiek bai izango direla komeriak! Ezkutatu beharra, ihes egin beharra, patinetetan, aukietan, txirinduetan eta beste hamaika tresna erabiliz ihes egingo du harik eta azkenean guztia argitzen den arte.

Jokin Mitxelenaren irudiek ederki islatzen dute liburua tonua; ekintzak, mugimenduak, abenturak, baina baita umorea, egoeren aldrebesa, eta kontsumoaren aurrean ageri den zeharkako kritika ere; telebistez osaturiko pareta handiak, iragarki komertzialak, eta abarren bidez.

Pottoko hipermerkatuan binomio fantastikoaren adibide argia dugu. Añorga eta Mitxelenak, baina, horretaz gain jakin dute umore horri, gertakari horiei, bestelako kontuak ere gehitzea, irakurleak, azken finean, disfrutatzeaz gain gogoeta pittin bat ere egin dezan hipermerkatuetan ez galtzeko.

Xabier Etxaniz Erle

## Medellingo lokatza

ALFREDO GÓMEZ CERDÁ

Ilustratzailea: XAN LÓPEZ DOMÍNGUEZ

Itzultzailea: AITOR ARANA

Ibaizabal, Bilbo, 2010

### Argi izpia lokatzetan

Kolonbiako Medellin hirian kokatu du istorio hau Alfredo Gómez Cerdá idazle espainiarrak, eta hango auzo pobre batean bizi diren bi mutikoren egunerokoak kontatzen dizkigu. Camilo eta Andres lagunak dira, utzi zioten eskolara joateari (zertarako, ez du balio, hobe dirua irabazten hasiz gero, . . .), egun osoa ematen dute auzotik bueltak eta iluntzean Camilok pattarra ekarri behar dio aitari horretarako lapurtu behar badu ere.

Egoera gogorra izanda ere abentura moduan, gaztetxoek jolas moduan planteatzen zaigu sarritan, dramatismo gabe horrelako giroan bizitzea ohiturik dagoen gazteen ikuspuntutik. Aita alkoholikoa dute lagun biek eta ederki dakite elkarri komunikatzen baita isiluneetan ere, Camilok lapurra izan nahi du, talde bat osatu eta boterea lortu; Andresek, baina, ez du lapurtu nahi, behin eta berriro egingo dio aurre lagunari, baina sentimendu hori baino askoz indartsuagoa da adiskidetasuna eta horregatik Camiloren ondoan izango da beti.

Medellingo auzo pobre batean gorabeherak izan zitekeen nobela hau, ordea, literaturaren aldeko testu bilakatu du idazleak abenturaren baten ondoren. Neskekin hitz egin nahi dutela eta, bi mutilak liburutegira joango dira eta han Mar liburuzaina ezagutuko dute, honen laguntza izan . . . baina baita liburuak lapurtu eguneroko pattarra erosi ahal izateko. Horrela egiten du Camilok harik eta egun batean lapurtutako liburuak irakurri nahi duen arte.

«—Eta nola lortuko duzu zure aitarentzako pattarra?

—Ezingo dut inola ere lortu.


—Orduan . . . ?

—Gaur gauean kalean lo egingo dut.» (137-138. or.)

Eta horrela, liburu horri esker —literaturari esker— irakurleak suma dezake aldaketaxoren bat edo beste gertatuko dela Camiloren eta Andresen bizitzan.

Espainiako sari nazionala lortu zuen iaz no-

10 +



bela honek HGL arloan, eta onartu behar da arin irakurtzen den liburu baten aurrean gaudela; bizitasun handiz kontaturiko gertaerak agertzen dira, nahiko errealak eta zehatz-mehatz azaldu baino iradokitzen direnak askotan, eta euskaraz duen bizitasun eta arintasun hori Aitor Aranaren itzulpenari zor zaio neurri handi batean, baina egileak ere erabakitako egiturak horretan laguntzen du. Nobela hainbat kapitulutan banaturik egonda ere, bizi-bizi irakurtzen da elkarriketek pisu handia dutelako. Bi lagunek elkarri kontatzen diote guztia, dituzten beldurrak, sentimenduak, asmoak, ametsak . . . denbora guztian ari dira elkarrekin hizketan, eta hori egiten ez duten une batean narratzaileak komentatzen du: «Camilori eta Andresi harrigarria zitzairen hain denbora luzean isilik egotea. Ez zeuden ohituta. Egia zen ezer esan beharrik ez zeukatela buruan zebilkiena jakiteko». (132. or.)

Liburu entretenigarria dugu, gazte protagonisten inguruko gertakarietan oinarritzen da eta hainbat denbora jauzi direla eta, lehenaldia eta oraina ezagutu ahalko ditugu, etorkizuna, berriz, iluna omen da. Auzo pobrea, familia desegituratua, familia barruko bortizkeria, lapurretak . . . eta hala ere, egoera horretan ere amaieran esperantza baten zantzuak igar daitezke liburu azken esaldietan:

«Ekaitza bukatu eta atertu zuenean, ur putzua beren aterpearen sarreraraino heldu zela konturatu ziren.

—Zortea izan dugu —Camiloren ahotsa zen.

—Oso zorte ona.

Eta bata bestearen ondoan uzkuriturik lo egiten saiatu ziren». (146. or.)

Xabier Etxaniz Erle





**MIKRO-IPUINAK**  
Pamiela etxea eta Euskara Kultur Elkar-  
goa, Iruñea, 2010

**Idazle gazteak**

Sarri gertatzen zaigu irakasleoi, gurasooi edo bibliotekarioi irakurketari ematen diogula garrantzia eta idazketa alboratzen dugula. Eta biek dute pisua fikzioaz gozatzeko orduan. Ez da erraza gazteei literatura idazteko amorrua kutsatzea, besteak beste, askok ez dutelako literatura sormena literatura irakurtzeko zaletasunarekin lotzen. Gaztetxoek oso esperientzia urria dute hizkuntza idatziaren inguruan, orokorrean; eta, nahiz eta literatura lehiaketak herri ugartitan antolatzen diren, esango nuke gutxitan lortzen dela idazle gazteen ganorazko haztegiak abiaraztea.

Zentzu horretan badaude zenbait proiektu gazteei euren hastapenetan bidea urratzen laguntzeko, adibidez, berriki kaleratu den Mikro-ipuinak bilduma bezalako ekarpen interesgarriak. Mikro-ipuinak Nafarroan egiten den lehiaketa da eta Lehen Hezkuntzan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan euskaraz ikasten duten ikasleei zuzenduta dago. Euskararen zonifikazioaren mugak gainditu ditu, euskara zonalde guztietara hedatuz; eta literatura genero bitxi eta interesgarri hau ikasle/idazle gazteen artean arrakastaz zabaltzea lortu du. Kontuan izan beharreko baldintza da «ipuinek ehun hitz baino gutxiago eduki behar dutela». Dagoeneko, lau deialdi egin dira, 2006tik

10 +

2009 bitartean. Egitasmoa sendotu egin da eta lan irabazleak bi liburuxkatan argitaratu dira.

Deialdi bakoitzean lankidetzan aritzen da euskal idazle edo euskal kultura munduko pertsona ezagunen bat, eta berak ere deialdi horri beste mikro-ipuini bat oparitzen dio. Perla ederrak oparitu ere! Bernardo Atxagaren «Zerua», Kirmen Uriberen «Liburua», Ruper Ordorika abeslariaren «Nor da?» eta, laugarren deialdian, Kike Amonarriz eta Ilaski Serrano telebista aurkezleen «Mikrosarrera» bitxia, irabazle guztien izenak testuan txertatzen dituena.


Hitzaurreak dioten moduan, «ehun hitzeko ehunka ipuinek hamaika gai jorratzen dute, hamaika ikuspuntu, hamaika modu», misterioitsuak batzuk, iradokitzaileak beste batzuk, barregarriak hainbat, amaiera tupustekoa edo bortitza dutenak, modernoak, ahozko folklorea oinarri hartzen dutenak. . . Eta antzematen da, ikasleen adinean aurrera egin ahala, ipuin konplexuago eta landuagoak idazteko gai direla gazteak. Hitz gutxitan bai, baina denak interesgarri eta indar handiko.

Izan ere, euskal literaturan mikro-ipuinetara hurbildu diren idazle batzuen artean—Julia Otxoa edo Pello Lizarralde, Karlos Linazasoro edo Joxan Ormazabal, batzuk aipatzearren—ikusitako dugu testu laburrak indarra izateko, mugimendua izan behar duela. Poesiaren adiskide edo aforismoaren lagun, mikro-ipuinetan hitz gutxitan narrazioa eta istorioa batera datoz, baina kontuz!, pieza txiki iheskorra da mikro-ipuina non garrantzi handia duen irakurleak, berak amaitzen baitu istorioa. Beraz, mikro-ipuini batek konplizea behar du, aurkikuntza irakurlearena baita. Horixe da ipuin eder baten misterioa: eleberriri batean ez bezala, idazleak ez digu dena eginda emango, geure aldetik jarri beharko dugu.

Zorionak idazle-gazte, irakasle-kudeatzaile, euskara kultur-elkarte, hautaketa egiten duen batzorde eta argitaletxeari. Geu ere, mikroipuini hauen irakurle garen aldetik, zorioneakoak!

Asun Agiriano

14 +



**Aurpegiko ubeldurak**  
ANTTON KAZABON  
Donostia, Elkar, 2010

**Gazte-(para)literatura tratu txarrei buruz**

Hasiera-hasieratik igar dezake irakurleak liburu honen gaia. Paratestuak oso argiak dira, izenburuak iradokitzen duenaz gain Unai Aranaren azalak tratu txarren inguruko ideia azaltzen baitu.

Kazabon dugu, eta horrela aipatu izan dugu besteetan ere, euskal-haur eta gazte-literaturan esperimentatzeko joera handien duen idazlea. Estilo aldetik, nola kontatu argumentua, narrazioaren ikuspegia, errekurso ezberdinak erabiltzeko joera, . . . eta baita ere gai aldetik. Oraingoan, aurretik aipatu bezala tratu txarren edo genero bortizkeriaren inguruko obra bat eskaintzen digu idazle ezagunak.

«Egunetik egunera hobeto dago ama. Lehenengo bisitak oso gogorrak izan ziren, baina azken aldia nahiko ongi ikusten dut. Aurpegiz itxura hobea eta hizketan ere zentzuz eta argi.» Honela hasten da nobela hau, eta irakurleak ikusi bezala protagonista nagusiaren alaba dugu narratzailea. Enara, hamazortzi urteko neska, dugu narratzailea eta amari jazotakoa kontatuko digu apur-apurka, baina baita etxean anaia gaztearekin bizi behar duen egoera gogorra ere. Izan ere, ama ospitalean dago aitak emaniko jipoiaren ondoren, baina hasieratik iradokitzen den bezala,

borroka horretan amak aita hil egiten du eta azken gertakari hau ez du onartu nahi Enararen anaiak. «Zergatik geratu gara aitarik gabe?» galdetuko du Lukax gazteak, «haserretzean denok hasten gara sesioan, neska. Eta aita ere tarteka haserretzea normala izango zen.»

Argumentuaren korapiloan, bestalde, gizonezko bi gehiago ageri dira, Enararen mutil laguna, hau laguntzeko prest ageri dena, eta Erramun, aspaldiko ezagun bat eta orain Enararen amarekin harremana hasi nahi duena. Honek guztiak sen-

timendu, jarrera eta jokabide ezberdinen aukera azaltzen du, baina protagonisten artean eboluzio txikia gertatzen delarik, hots, protagonistak nahiko lauk dira.

Alde horretatik onartu egin behar da honelako gai baten inguruan nobela bat egiteko apustua, horrelako egoeren ikuspegi eta jokabide ezberdinek sortaraz dezaketen elkarriketa eta eztabaida; baina, era berean, horrek berak testuaren irakurketa nahiko sinplea bultzatzen duela esango nuke.

Duela gutxi Iban Zalduak «gazte-literaturaren aurka» idazten zuen, gazteentzat apropos eginiko liburuek kalte egin diezaioketela literaturari eta horien ordez literatura klasikoak errebindikatzan ditu gazteentzat, «agian ez du liburua osoro ulertuko [...] baina literatura benetan zer den asmatzen hasiko litzateke». Kazabonen lan honek gaiaren aldetik apustu eta esfortzua eskatu duen bezala, ez dut uste literatura aldetik, istorioaren eta protagonisten garapenean asmatzen duenik.

Xabier Etxaniz Erle


### Irudika: 30 euskal irudigile Euskal Irudigileen Elkarte Profesionala, Bilbo, 2010

#### Irudien ahotsa

Egun, irudiek gizartearen duten garrantzia inork ez du ukatzen. Comenius izeneko pedagogoko 1658. urtean latina irakasteko liburu ilustratua argitaratu zuen, konbentzitutua baitzegoen irudiek irakurketa pizteko arreta bereganatzen zutela eta irudiek ulermen ahalmenean sekulako indarra zutela. Ordutik hona iraultza handia bizi izan dugu irudien munduan.

Halere, gure inguruan ilustrazioak garesti ordaindu du haur-literaturari estuegi lotua egotea. Horregatik, agian, ez du lortu iparralderago dauden lurraldeetan izan duen arrakasta soziokulturala. Letrak eta testuak marrazkiei gailendu zaizkie. Inertzia horrek eraman ditu heldu asko eta asko irudiak ez «ikustera». «Komikiak nahiago ez», diote sarri gurasoek seme-alabentzako liburuek eskatzen hurbiltzen direnean. Izan daiteke irakurtzen jakin bai, baina irudien hizkuntza ulertzeko gai ez garelako. Marrazkiak egiteko abilitadea galdu edo inoiz eskuratu ez duenari zail egiten zaio iritzi estetikoaren inguruan argudiatzea, ez baitu ikasi irudiak hitzen bidez deskodetzen.

Horiek horrela izanda ere, irudigileentzako lanik ez da falta izan eta sorkuntza-lan bikainak ikusteko eta disfrutatzeke aukera izan dugu. Horren isla da, adibidez, *Irudika* izeneko katalogoa, edizio zainduan 30 euskal ilustratzaileen lanak jasotzen dituen; besteak beste, Patxi Zubizarretaren sarrera eder batekin.



Izan ere, hamar urte baino gehiago igaro dira Arabako Foru Aldundiak argitaratu zuenetik «Euskarazko haur eta gazte literaturaren ilustratzaileak» katalogoa, Xabier Etxanizek zuzenduta. Ordutik hona, aldaketa handiak izan dira eta premiazkoa zen egungo euskal ilustrazioak duen presentziagatik, lan eta izen jakin batzuk ezagutaraztea.

Irudigile batzuk ezezagunak egingo zaizkigu, beraz, aipatutako helburu hori betetzera dator katalogoa, alegia, irudigile horien proposamenak ikustaraztera. Beste irudigile batzuk faltan botako ditugu, aukeraketa lan guztietan gertatzen den moduan. Baina Daniel Martínez, Irudigileen Elkarte Profesionalaren zuzendariak dioen bezala: «hau lehenengo zerbakia da eta azkena eta bakarra ez izatea espero dugu. *Irudika*

aldizkakotasun mugagabeko argitalpena izango da, bizirik eta etengabeko garapenean aurkitzen den sektore artistiko-profesionalaren berri aldizka emango duena.»

Horrela, ikusiko dugu irudigileek erabilitako teknikak ugariak direla: tradizionalagoak, digitalak, edo bien arteko konbinazioa. Jabetuko gara, halaber, irudia ez dela soilik hitzak ulertzeko arrastoa, irudiak berak protagonismo handia duela, ez dela bizi hitzen aginduetara.

Estimatzekoa da katalogo honetan proposamen eta estilo anitzen izenak jasotzea: publizitatean aritzen direnak, prentsan euren sormen lana garatzen dutenak, multimedien erosoago daudenak, diseinu lanetan dihardutenak, literaturan murgildu direnak... artista hauek guztiak bizirik eta indartsu daudela frogatzen da *Irudika* katalogoa begiztatzen denean.

Beharbada, Martin Salisbury-ren *Imagenes que cuentan* (Gustavo Gili, 2007) katalogoan egin zuten antzera, ondo zegokeen egile bakoitzaren biografia labur bat idaztea, lanaren balorazio bat edo irudigilearen hitzak gehitzea, artistaren mundu kontzeptuala hobeto ulertzeko; hain zuzen ere, edizio kritikoagoa izatea. Baina etorriko da denborarekin, Euskal Irudigileak elkartetik interesa eta gogoia badago eta.

Momentuz, beharrezkoa zen hutsune hau betetzea, urrats garrantzitsua baita Euskal Herrian dauden irudi proposamen askotarikotan sarbidea egiteko.

Asun Agiriano